



«Matriarkatuaren ideiak berdintasunaren ilusio faltsua islatzen du»

Marta Sabando Martinez • Artxibozaina eta arkeologoa

Gasteizko kontzejuetako ordenantzetan emakumeen presentzia oso txikia izan dela azaldu du Sabandok, eta eliza katolikoak herrietan izan duen pisua nabarmendu du, halaber.

Jon Rejedo Gasteiz

Komunitatea gobernatzeko tresnak izan dira kontzejuak, historian. «Aitu batzuek bisigodoen garaian kokatzen dituzte», azaldu du Marta Sabando Martinezek (Logroño, Espainia, 1984), Ondare Babesa enpresako kideak. Gasteizko udalerriari 60 herri baino gehiago daude, eta kontzejuen bidez gobernatzen dituzte. Ordea, zein izan da emakumeek kontzejuetan izan duten garrantzia? Nola islatu da hori tokian tokiko araudietan? Ostiral honetan galdera horiei helduko diete *Kontzejuak eta landa eremuko emakumeak historian zehar* hitzaldian, 17:30ean, Gasteizko Kontzejuen Elkarrekin antolatuta. Elorriagako (Araba) Biltzar Etxean izango da, eta, besteak beste, Sabandok parte hartuko du. Hitzaldien helburua emakumeek historian egin duten bidez kontzientzia hartzea izango da.

Zergatik aukeratu dituzue ordenantzak emakumeak landa eremuan izan duen presentziari buruz hausnartzeko?

Ordenantzetan herria gobernatzeko irizpideak zehazten dira, agintea duten hiritarrek berek erabakita. Ordea, agintea dutenek beren arrastoa ere uzten dute. Horregatik da garrantzitsua emakumeek era-

baki postuetan parte hartzea eta ordenantzak irakurtzen jakitea.

Kontzejuetako ordenantzen digitalizazioa eta ikerketa lana hasi zenuenean, hipotesiren bat al zenuen? Gauzatu al da?

Genero ikuspuntua aintzat hartuta hasi genuen ikerketa, baina emakumeari buruzko ezer ez da agertzen garai horretan. Gizonarentzat idatzita daude, gizonak idazten baitzituzten ordenantza horiek.

Hitzaldiaren programaren barruan landa eremuko emakumeen «inboluzioa» ere aipatu duzue.

Mende askoan ez da ezer garatu. Egun, susperraldi bat egon daiteke, baina duela oso gutxi hasi zen. Hori guztia ikusiko dugu, baita Euskal Herriko matriarkatua ere. Ideia hori tentuz hartzekoa da.

Matriarkatuaren ideia desitxuratu egin al da? Mitifikatu egin al da?

Azken hitzaldian horri buruz hitz egin genuen. Botere politiko eta kulturala gizonena izan da, esaten dena esaten dela. Horregatik apurto nahi dugu mitoeikin, eta errealtateari heldu, egin daitekeen horri.

Zein da emakumeen presentzia kontzejuetan?

Landa eremuko emakumeek gogorazten dute duela 20-30 urte hasi zirela kontzejuetan parte hartzen. Gaur egun, ordezkarren %10 inguru izango dira. Oso parte hartze txikia.

LOTSABAKO

Historiako zein garaitara bidaiatuko zenuke? Historiarera. Garai horretaz dakiguna egungo begiekin hausnartu duguna baita.

Zer dokumentatu nahiko zenuke? Emakumearen papera, besteak beste. Egungo nekazaritzaren aitzindariak direla esan ohi da.

ATZEKOZ AURRERA



JAIZKI FONTANEDA / ARGAZKI PRESS

Zerk eragin du horretan?

Kulturak... Eliza katolikoak ere pisu handia izan du. Garai batean, egutegia antolatzen zen elizak markatzen zuenaren arabera. Emakumearentzako jai gutxi zeuden, eta, zeuden apurretan, helburua bikotekidea lortzea zen. Horrez gain, hirietan ager zitezkeen ideiek eragin txikia zuten landa eremuan.

Zama hori nabaritzen da egun?

Tailer batean, kide batek kasu adierazgarri bat aipatu zigun, duela zenbait urte gertatua. Kontzeju bateko bilerara joan zen, eta han zeuden gizonak galdetu zioten ea ez ote zuen beste egitekorik. Asko borrokatu behar da oraindik. Horregatik, matriarkatuaren mitoa mahai gai-

nean jarri nahi dugu, berdintasunaren ilusio faltsua islatzen duelako.

Aldaketa demografikoek eraginik izan al dute kontzejuak gaurkotzerakoan?

Edadetuak geratu ohi dira herrietan: beste pentsamolde bat duten pertsonak izan ohi dira, eta aldaketak zailago hartzen dituzte. Zorionez, emakumeak ere kontzientzia hartuz doaz. Horrez gain, bizilaguna eta kanpotarra bereizi ohi dira, oraindik ere. Kontzeju batzuetan lanak daude horretan aurrera egiteko. Dena den, herrietara heltzen diren gazteak, emakumeak zein gizonak, kontzejuak berritzen laguntzen ari dira. Baina lan handia dago egiteko.